

HM 5. JARDUNALDIAK : Oiartzun, 2006ko azaroak 25 eta 26. PANDEROAREN INGURUAN


Bosgarren Herri Musika Jardunaldiak bi elkarte lagunekin batera antolatuko ditugu: Euskal Herriko Trikitixa Elkarte eta Pontevedrako Conservatorio de Música Tradicional y Folque de Lalín. Aurrekoetan bezala gai baten inguruan arituko gara bosgarren edizio honetan. Oraingoan herri musikan presentzia oso handia duen panderoa edo pandereta

Zergatik eta nola izan da hiru elkarteon arteko egitasmo hau batera antolatzeko bidea? 2006ko otsaileko lauean Herri Musikaren Txokoa Galiziako "Conservatorio de Música Tradicional y Folque Lalín" eskolaren bisita jaso genuen. Herri Musika Eskola honek Galizian "Encontro de pandereita peninsular" bi urtetan antolatu du eta halako topaketa berri bat Galiziatik kanpo egitea komeniko zela adierazi ziguten.

Berehala, guk antolatzen dugun Herri Musika Jardunaldietako edizio berrirako gaia izan zitekeela ikusi genuen. Galiziarren adostasunarekin, panderoaren gaia aspaldidanik jorratzen duen Euskal Herriko Trikitixa Elkarteari egitasmo hau aurkeztu genion eta hauek segituan 5. HM Jardunaldiak elkarrekin antolatzeko euren adostasuna eman ziguten.

Galiziar eta euskaldunon artean antolatutako jardunaldi hauetan bi herriotako ordezkariak izango ditugu eta hauetaz gain beste

herrialde bateko aditu baten parte hartzea ere proposatzen da. Horretarako panderetan aditua den Leongo Gabriel González Villalba gonbidatu dugu. Beraz, soinu-tresna honi buruz Galiziako, Euskal



Miguel Arregi "Iturbide"

Herriko eta Gaztela Leongo adituek egindako lan eta ikerketen aurkezpenak, gogoeta egiteko mahainguruak, entzunaldiak eta tailek antolatu ditugu, egita-

rau zabal bat osatuz. Jardunaldion programa era-bat bukatuta ez badago ere, hau da orain arte prestatutakoa:

Larunbata

Goizean. Auzokalteko aretoan panderoari buruz prestatutako hitzaldien aurkezpenak izango dira. Bertan egileek, bakoitzak bere lana aurrez aurre emango du.

Hitzaldiak

- **Xabier Leturia eta Imanol Urkizu.** *Panderoa Euskal Herrian.*

- **José Luis do Pico.** "C. M. T. F. de Lalín"-go *Teoría y Método*-ko irakaslea.

- **Gabriel González Villalba.** *Pandero y pandereta. Canto y baile de la tradición en León y provincias limítrofes.*

Arratsaldeko 15:30etan,

Auzokalteko aretoan. Mahai ingurua: Ikuspuntu ezberdinetatik panderoaren inguruan gogoeta egiteko gonbidapena. Bertan pandero jole, irakasle, zale eta abar elkartuko dira.

Arratsaldeko 7:00etan,

PANDERO JOLEEN JAIALDIA

Panderoa jotzeko joera, modu eta eredu ezberdinak aurkeztuz.

- **Imanol, Leturia, Mutriku.** Panderoa eta kantua

- **Conservatorio de Música Tradicional y Folque de Lalín.** Duo de pandereiteiras.

- **Gabriel González Villalba.**

Toques de pandero y pandereta. Canto y baile de la tradición en León y provincias limítrofes.

- **Roberto eta Kepa.** Trikitixa, pandero eta kantua.

Igandea

Goizean. pandereta-panderoko tailerrak

- **Urko Arozena** (Euskal Herria. Perkusio irakaslea); Pandroaren irakaskuntza musika kontserbatorioetan

- **Davide Salvado** (Galicia. J. Manuel Budiñoren taldeko partaidea); *Pandereita galega. Formas tradicionales y de reelaboración.*

- **Gabriel González Villalba.** *Toques de pandero y pandereta. Canto y baile de la tradición en León y provincias limítrofes. ritmos varios 6/8, 2/4, 4/4, etc. a lo ligero o a lo llano etc.*

Arratsaldeko 5etatik aurrera
Kontsejupean:

ERROMERIA

- **Oiartzungo Bertsolari eta trikitilariak**

- **Imanol, Leturia, Mutriku.** Panderoa eta kantua

- **Galiziako "pandereteiras"**

- **Leongo Gabriel González Villalba**

- **Zumarragako Trikitixa**

HM Txokoa Extremadura aldean.

2006ko maiatzaren 12, 13 eta 14an, Cáceres probintziako *Valencia de Alcántara* herri politan "*I Congreso Internacional de Música, Identidad y Cultura en Extremadura*" burutu da, HM Txokoa Kongresoaren erakunde kolaboratzaileen artean izan delarik. Oso interesgarri izan ziren hiru egunetan aurkeztu ziren lanak eta entzun ziren musika emanaldiak. Bertan Juan Mari Beltran HM Txokoaren zuzendariak "*Instrumentos y Música Popular Vasca*" hitzaldi-emanaldia eta "*Algunos instrumentos en la música popular vasca*" tailerra eskaini zituen.

Galiziako "Conservatorio de Música Tradicional e Folque de Lalín"go bisita.

2006ko otsaileko lauean Herri Musikaren Txokoa Galiziako "*Conservatorio de Música Tradicional y Folque Lalín*" eskolaren irakasle eta ikasleen bisita jaso genuen. Herri Musika Eskola hau eredugarria da Galiziako eta esparru zabalago batean herri musika hezkuntza eta zabalkuntzan.



HM Eskola Eguneko momentu bat

Oiartzungo HM Eskola eguna

HM Txokoak kudeatzen duen Oiartzungo Herri Musika Eskolak maiatzaren 28an eta bigarren aldiz, eskolaren ikasturte bukaera ospatu zuen. Egun ederra benetan, bai musika aldetik eta giro aldetik ere bai. Eguerdiko 12etan Kontsejupean txalaparta, alboka, dultzaina eta herri perkusio ikasleek, irakasleen laguntzarekin, mota ezberdinetako taldeak osatuz musika emanaldi ona, era askotakoa eta entretenigarria eskaini zuten.

Ondoren, musika jotzen kalebuelta eginez, Lartaun Elkartera joan ginen eta bertan bazkari ederraren ondoren musika, kantu eta dantzaz alaituriko bazkalondo aparta izan genuen. Arratsaldeko zazpi t'erdia aldean plazara itzuli eta festa ordu txikiak jo arte luzatu zen

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udako kontzertua

2006ko uztailaren 1ean - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan



dutela, doinua eta hitzak tradizionalak, baina ez ezagunak izango direla,... Instrumentalak berriak badira euskal tradizioan ondo txertatuta egongo dira baina zaharrak izatekotan, moldaketak berria izan beharko du. Dena argitaragabea, gutxi gora behera. Abestiak serioak, instrumentalak berriz alaiak. Moldaketak akustikoak. Ederki. Errazena erabakita dagoenez lanik zailenari

AINTZINA

Lau adiskide musikaririk filosofatzeko, txistek kontatzeko eta maite duten musika jotzeko geratu nahi dute, dauzkaten beste musika proiektuei denbora pixka bat kenduta. Guztiak biltzeko eguneko une bakarria goizeko bederatzia direla ikusita asteroko gosari saioei ekiten diete, hasiera batean lagun baten etxean, hurrengoan beste batenean eta abar. Bakoitzak, ekarpen filosofikoa eta soinu-tresnaren bat eramateaz gain opilak, kruasanak, pastelak eta ogi exotikoak ere jartzen ditu mahai gainean, pixkanaka gizentzen doazelarik. Kezkatuta omen daude pairatzen duten gulagatik, baina horretan jarraitzen dute. Jaten. Eta tea edaten. Agian, tea pizgarria delako, ideiak sortzen dira, bai eta musika ere. Batek antzinako euskal abesti narratiboetan oinarritutako proiektua mahaigaineratzen du, besteak doinu instrumental berriak herri musikan sustraitutakoak. Euskal dantzen artetik pare bat modu berritzailean moldatzea proposatzen du hirugarrenak eta laugarrenak, irribarretsu, eta gero eta opil gehiago eramanez, guztiari baietz esaten dio buruaz, ahoa beteta daukalako. Betekada hauen ondorioz bururatzen zaizkie bururatzen zaizkienak: abestiek istorioa izan beharko

ekiten diote, hots, taldearen izena auke-ratzeri. 58 proposamen ateratzen dira, horietako batzuk serioski planteatuta, baina gehienek momentuan bertan jasotzen dute betoa. Lau aste eta 97 te katiluren ondoren bakarrik geratzen da -agian asperduragatik?- azken proposamena:

Aintzina.

Aintzina - lehen.

Aintzina - jarre!

Aintzina - alde ona.

Aintzina - muga.

Aintzina - haratago.

Aintzina - dantza pauso bat.

Aintzina, itxuraz paradoxa bat. ***Aintzina,*** atzetik, aurrerantz.

Aintzina - istorio zaharrak gaur egungo moldaketaz abestuta; euskal instrumental berriak aintzinasun usainaz

Aintzina:

Zigor Sagarna: ahotsa, baxua, panderoa

Juanjo Otxandorena: bouzoukia, ahotsa

Arkaitz Miner: biolina, mandolina, ahotsa

Alan Griffin: haizezko soinu-tresnak, ahotsa

FERNANDO JALON ETA JAVIER SOLDEVILLA

Errioxako gaiteroak

Bikote musikari honek urte batzuk darama dagoenez gero Errioxako jai ospakizunetan irauten duten ohizko dantza erritualak laguntzen. Hauetara urtero joateak eta bertako jendearekin aritzeak handitu dute beraien errepertorioa, zenbait eskualdeetan egindako jasoketa lanak bezala. *Alto Lezako Camero Viejon* esate baterako, azken gerra zibiletik aurrera baztertutako doinu zaharrak bildu dituzte, bertako musikari eta dantzari zaharrendik.

Kontzertu honetan Errioxako dantza erritualen musikak eskeiniko dituzte.

Osatuko duten panoramika zabal horretan *Camero Viejoko* doinu zahar horiek eta *Rioja Altako* beste batzuetaz gain, XX. mendearen hasieran, *Alto Najerillan* bazterturik geratu zen bota edo gaita de botaz jotako doinu batzuk ere entzungo ditugu. Azken zonalde honetan ere berreskuratu dira dantza asko. *Viniegra de Arriba*, *Viniegra de Abajo* eta *Ventrosako* doinuak joko dituzte.

Fernando Jalón: *gaita* eta *gaita de bota*. Errioxako herri musikaren bilketa eta berreskuratze lan garrantzituak egin ditu. *Gaita* eta *gaita de botako* irakaslea izan da eta soinu-tresna ezberdinen egilea da. Gaitero bezala Errioxako dantza talde ezberdinekin dabil.

Javier Soldevilla: *tambor*. Aurrekoarekin batera *tambor* klaseak eman ditu *Haro*,

Briones eta *Alberiteko gaita* eta *tamborreko* eskoletan, *Alfaro* eta *Logroño*koetan jarraitzen duelarik. Errioxako gaitero talde ezberdinetan jotzen du eta hainbat herri musikako grabaziotan hartu du parte; azkena Fernando Jalonekin batera, "*Danzas del Camero Viejo*" diskan.

Udako kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.



kontzertu honen
laguntzaileak:



AUZOKALTE

ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA

BISITARI KOPURUA

Martxoa: bisitari kopurua: 534

Antolatutako taldeak: 26

Apirila: bisitari kopurua: 287

Antolatutako taldeak: 15

Maiatza: bisitari kopurua: 412

Antolatutako taldeak: 20

Bisitari kopurua ekinera arte: 12.086

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

